


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

EUSKALERRIAN BARN



XABIER KINTANA'EN LIBURU BERRIA

LUR Editorialak Xabier Kintana'ren euskal liburu berria atera berri du: **BEHIN BATEAN** izeneko da. Liburu hontan zapi ipuin agertzen dira; hauen artean *Sisyfo*, *Amore maite* eta *Ukronia* interesgarrienak dira nere ustez. Beste lau ipuinen izenak hauek dira: *Indiarren istorio bat*, *Gorenkiak*, *Tresnak* eta *Giza al-dakera*.

Eskatzen: Villa Zutik — Paseo Arbola — Donostia.

ORREAGA'KO AZKEN EUSKAL FESTA

DIARIO DE NAVARRA'ren erdal orrialdeetan euskal festa honen berriak agertu baziran ere nik ere gure «Nafar hizkuntza» zerbitu edo, nahi dut azaldu. Izan ere joan berri den Uztailaren lehenengo igandean ospatu zan euskal bestak izugarriko arrakasta izan du Nafarroa eta baita ere Euskal Herriko txoko guztietan.

Gure Diputazioak bere «Euskeraren Aldeko Salia» ren bitartez «Euskal Hizkuntzaren Eguna» hau le-

henbiziko aldiz antolatu zuen. Berak antolatu bai eta gero Nafarroko seme euskaltzaleak arrera ona eta aurpegi goxo emanik Orreaga multzoka juan ziran gure «euskera» ren maitasun eta onginalia azaldu beharrez.

Millaka jende bildu zan amaiketarako Orreaga Eil-zan bertako Ama Birginiari euskarari laguntza eta babespea eskatzeko. Euskal meza zoragarria eman zen bost apzeekin konzelebratua. Ondorean Orreagako Etxeko aurrean dan zelai

ederrean bertsolariak, dantzariak, euskal kantariak, bakarka eta otzotea, denetaz izan zan han bildu zan jendea ikusten zuen guzia benetako txaloekin sarrituz. Han ari izan ziran Obebera Taldeko txistulari haundia; iru euskal kantari bakarka kantatuz: Valenzia Iruñeko, Goya Beraña, eta Etxarri Lekunberriko; han ere dantzatu Tudelako dantzariak, neska ta mutilak, Tafallakoak, Aizkokoak, Lizarrakoak; bertan ere kantatu Etxarri Aranazko «Sakana-koak» izeneko Zortzikotak han ere festaren asieran eta amaitutzean Berrobiko bi bertsolari: Garmendia eta Mañosa Gipuzkoako agurra bere nafar anaiel eman nahirik; eta gainera gure Seigarren Merindadearenak ere gurekin egon ziran Nafarroa osoa bateratuz: Baigorriko dantzari taldea ari zu izan zan Erramouzepe jauna berekin ere etorria.

Aurtengo «Euskeraren eguna» hau urteoroko beste egitekoa da. Ezpanda gure Diputazio euskalduna festa dena ikusitaforge Kortez Itzal jaunari «Institución Príncipe de Viana» ren «Euskeraren aldeko Salia» ren burua denari esan zion datorren urtean aurtengoa baño oraindik ederragoa egiteko. Diputazioak behar dan laguntza guzia emango du.

Nafarroko Ikastola guzdiak han ziran: Iruñekoak, Aizkoko, Olaguekoak, Lizarrakoak, Tafallakoak, Olazti eta Aizkokoak, Burlada eta Etxarri Aranazkoak, Lakuntza eta Lekunberrikoak, Elizondo eta



Leiztekoak, denak bildurik euskeraz mintzatzen, erretzen, kantatzen, pentsatzen, eta euskera indartzen, berplutuzten goraltean.

Orreaga'ra irixtean Dextepare zenak errandako esatera famatua agertzen zan «Euskara iaigi adi plazara».

Nafarroko plaza guztietara agertzeko ahalaginak egin dituzagun eta azalduko da pasatutako beste auzenplu eta bidea izan delakoa.

GOYA, ARBEA, VALENCIA, ETXARRI GURE EUSKAL KANTARIAK

Puxkanaka puxkanaka gure Nafarroan euskal kantari agertzen ari dira. Lehenbizikotik Irigaray anaiak agertu zitzaizkigun euskal kantual gitaraz abestuz. Gure Frantzi aldeko Nafarroan badira batzuk oso ezagun eta dotoreak direnak: Etxamendi, Larralde... Oran beste batzuk agertu dira: Mikel Arbea Iruñeko, Fermín Balencia Eto Gatzagako, J. Mikel Etxarri Larraundarra dena eta Yosu Goya Bidasoko Berakoa. Gure Teatro, Festa Aretotian, herriko plazetan, ari dira azaltzen. Etxo haundiak desiatzen dizkietegu guzietan.

IRUÑEKO DENEDE BATEAN EUSKAL AGRIA Oñetako denda batek gure Iruñean Ikastolearen aurtuz guzien gurasoari babalabide moduko agiri bat bialdu die hau esanaz: Ikastoleen aurtentzako eskaintza agitzu berezia egingo dela eta bertu honenkin bukatzen da: Estatuta kalean / oñetako denda, / «Mercedes» du izena / guztiz berezia. / Han-

dik atera eta / amar urtetara / ez zaizu damutuko / bertan erosia.

Iruñeko Ikastoleen zapiehun aurrak asko dira txantxetako gauza izateko. Hor dazute euskaldunok seinala!

PATXI ZABALETAREN BERTSO LUBURUA

Patxi Zabaleta Leizteko sema dugu; Leizteko ikaslea da, euskalduna, euskaltzale, gizon argi eta prestua. Nafarroko Diputazioaren «Príncipe de Viana» agerikariaren «ARNAS BERRI» izeneko orria berak eraten du. Berak eginikotako bertso liburu bat idatzi du eta ETOR delako Editorialak argitaratu eman berri du. Liburu berri honen izena: ZORION BATEAN ZAINAK' da.

Zorionak euskal poeta gazte honi bere liburu honengatik. Esperoan gaude liburu honek salmenta haundia euskal jende artean izanen duela.

UTS BAT ZUZENDU NAHIRIK

Lehenengo «euskal orrian» Latxagak idatzitako idazlana bere izenaren faltaz agertu zan; hau da izenpetu gabe moduan azaldua. Idazlaren izenburua «Karle Garmendia Nafarroko Edestiaren Margolaria» zan. Lan honen azpian «Latxaga» izena ez zan agertu zergatik, eta zuek erreki konprenituko duzuten bezala, nolaz behin eta askotan mailzik, «Inotipiatzen sorgeinek» egilearen izena kendu bait ziguten. Barkatu «Latxaga» eta gauzak behar diran bezala azaldu bitez.

IKUSLE.

EUSKALDUNAK IPAR-AMERIKAN

Hemen Nafarroan gutti izanen da, California edo Nevada edo halako eskualdetako berriki ezaguna, bereziki euskaldunen artean. Gutarriak han, 4-5 Estatuak bereizirik daude, Espainia bezalako Estatu aundietan; horrengatik de zail, euskaldunok zaitzea; hala ere, aunitze Nafarroan baino gelago gordetzen dute euskara (Nafarrek berek), eta ezazu ditugu bakar batzu, hemendik eraldunak joan eta euskaldun bihurtu direnak; ezdenez arrigari. Badugu beraz non ikas.

Libete hontan daude preziki Ustaritz, LANDAGOYEN deltu egoltza nasal batean, kursori bat segitzen, Nevada eta beste tokielako gazte multxo bat, handik espres etorriak; gazte horiak, neskakak gelenak, euskaldunen seme-alaba dira, han sortuak eta euskara eta Euskalerriko jakinagariak ikasi nai dituztenak.


Iruñe eta Tafallaraino bisita bat egiteko omen daude. Ongi etorri beraz gazte hoierik egiten diotegu, eta agian euskal gauzen amodioa eramenen beren etxetara.

Hango euskaldunak, gein a k, Californian, Idahoan, Nevada n, Wyoming-en, Colorado-n... daude barretuak. CALIFORNIA-n gelanak nafarrak dira. San Francisco-ko aberatsen Hotelak baztandarek dituzte; Indart, Astiz, Martin Abaurrea eta halakoen eskutan; bai eta xurimanta eta bokatategiak. Jardin apainzaile bezala, ziberotarrak hiri hortan, Los Angeles-en bezala. SAN FRANCISCO-n 300 baino gelago euskaldun badira, eta Estado osoan, 3.000 baino gelago.

STOCKTON hirian ere, nafarrak gelenak, euskaldunetan; los BARBARA, BUENA VISTA eta FRESNO-bezala; azken hunkto euskal deituretan, Migel Ochandorena, Egozue, Arteaga, Arbi-zu daude, nekazalgon aberatu direnak.

Ego-Californian dauden SAN DIEGO eta RICHMOND hierietako, aireko eta itsasontzien Lantegi aundietan, euskaldun asko dago.

NEVADA Estatuan ere mila-k daude; RENO hiriburu famatu 500 baino gelago; horko Hotel gelenak eta jostaetxeak euskaldunen eskutan omen; eskontzak legez egiteko, bai desegiteko ere leku autu da, eta jendea trumika biltzen. Horko merkataria ezagunak, Saralegi Arizukoa, Pedro Aldaz Aguilokoa, Jauregui (Hotel Storm Snow garrestu baten nagusia) eta beste. Gutar asko dagon beste hiri bat Nevada, ELKO da. Merkatalgoan satzuk dauden artean, Plaza, Errea, Itzaina, Ametzi, nafar deiturak kausitzen ditugu, bai eta Lastra Luzaidoko Osoz Lata-sako, Migel Arregi Erreako eta halakoak. WINNEMUCCA-n ditugu irulegi (Linzoiñgoa), Arce-lus, Mendib, Oyarbide nafarrak; Nevada Estadon ere, IDAHO Estaduan ere aunitz euskaldun dago, 8.000 baino gelago. Boise hiriburu da, Amriketan euskaldun elien dagon hiri, gelenak bizkaitarrak; hango karriketan entzuten omen da euskara aunitz, Eus-



kalerriko hiritan baino ere geiago; mire garrial

OREGON Estatuan, Jordan Wally deitu hiriko alkatea, Domingo iturri bat izan da.

Baina, hira joaten diran euskaldun gelenak, artzain bezala dozi lehenean, irabazi politikak egiteko xedearekin, baina bizietze baktari eta hita bat eramanaz, eremu urrun eta triste haletan. Horko artzainek eginikotako bertsuak irakurri izan ditugu noizean behin HERRIA asteleanean, hango bere bizimoldearen tristora negargarriak kondartzen.

Ez espaldi. Haritxelhar euskal-zainak kondatu izanditdu HERRIA asteleanean, California eta nevadako euskaldunen obra haundiak horien artean hara bat edo beste:

«...Ezin ahanitziko pida...» han bizi diren euskaldunek nai zauten erakusti, zer toki aberats eta zabaletan bizi diren... Californian, Frantzia bezain zabalba eremu, hogei milion bizitzaile: bi hiri nagusi; LOS ANGELES, 3 millon, inguruetako hiriekin 7 millonetara heltzen dena; SAN FRANCISCO (700.000), bainan bazterrean hiriekin, 3 millon arimetara heltzen. Hiri zabalak segur, zeren eta estala batetako edo estala gabek aunitz etxe baita... SAN FRANCISCO-ko eta BAKER FIELDS-eko inguruetan dira mahastiak. Ura badoa errekia tipik bihurtzen mahastien urtatzeko, idortu aundiak baitira... Puente-ko eskualdean ikusi dugu ALTADENA deitzen den lecheria; han 8 mila behi eta horietan, lau mila eta bostean deitzen ziren bi aldiz egun guztiz. Beiak lerroka heldu ziren; dutxatzen zituzten, errapeak ongi ikuzten (garbitzen) eta xukutzen eta orduan deitzen ziren... (Atxi kasu hori)... Chino eta Puente-ko arteko Arrantzo (Ranch) batean gietzen dituzte 10.000 idi; ezarriak ziren arrazen arabera; hor zauden, lo-

di, gizen, jori, hauntuak bezala, belduatuek ere urbiltzen ginelarik Gutarriak, eta Californiako eskualdunekin, beti eskuaraz arizan

A. Apat-Echebarrne

gira. Hitzaldiak denak eskuaraz... (Badugu non ikas, bereziki Nafarro hontan).

A. Apat-Echebarrne

AKZIDENTE BAT

Ume batek faldetzen ba digu: sei illabete denbora luzea da? gurek ume onl erantzutzu diegu sei illabete urte erdi bat dala edo egiteasei aste edo cun eta iaurogei ta iru egun direla. Ori ala da. Baña ifioiz gaxorik egon extenareztzat, egun batean esaten ba diote oean (guztian) sartu eta sei illabetearen etzinda egon bear dala, orduan sei illabete oiek ezitza sei illabete. Denbora orrek eternidade bat dirudi. Gainera etzinda egon bear dala geldigorra ba da, denbora orl luzeago irudiko zala oraindik. Gu-txi gora bera alako bat gertu zait neri.

Orain sei illabete eskolako edo ikastetxeiko lanak bukatu edo aka batuta opor edo bakaziotan sartu gihan. Emen opporak urtean azkenean asten dira orduan undan sartzen bai gero. Ez ueste oppor-rrakin ikasleak bakarrrik pozutuzten dirala. Irakasleak ere pozutuzten dira. Neri gertatu zindatena opporretan eta gainera Eguberri egunean zen. Goizean elizko lanak eginda, arratsaldean adiskide bat-zuei zerlonak ematera motoan atera mintzen. Dana ongi zijioan, bafia alako batean lurrean ikusi mintzen. Bein idatzi nuen izpa-rringil ottan bertan moia emen, Salta'n Argentina'ko txoko entan, ibiltzen diran karnabaletan eta moia moskortzen diran. Ba, Egu berri, Urteaz eta Urteberri alde-ra berditu izaten da. Egun oien-tan akzidente asko izaten dira. Neri alako bat gertatu zaiten. Abenida oso zabal bat igaro edo pasatzekean auto txiki bat gañe-ra etorri zaiten eta alkar-jotze-a

kin beste eldean gelditu mient-zan. Erdi moskortuta eta ajola-jarik zetortzen. Oraindik esan zidaten ez mindutela ikusi. Abenida orrek or daukan zuzentasa eta zabalera orrekin!

Nola gelditu nintzan alkar-jotze arekin? Txonboloko ezurra autsi eta zauri aundi bat egin zaidan. Zauria ezurrañño utsik zegoen. Alaz ere nik orduan enuan ueste sinbesterafoko izango zala. Ezurra illabete terdirekin sendatu-rik zegoen, baña zauri obek lan asko eman di. Txertu bat jarri zidaten eta etzizidaten artu. Asperitu nintzan oean edo guztien egotez. Azkeniako oraintxe zauria enuan. Ibiltarian, jarrita, eta zutik egotean mifa ematen zidaten eta anka asko azitzen zaiten.


Sei illabete oiek eternidade bat epadira gertu izango da eta nolai ere naioka luze dira. Orain-dik sendagileekin edo mediku-kin nabil eta anka ezta erabat sendatu baña egun guztia zutik nabil. Azal edo lerruak lan pixha bat emango di baña ez asko. la erebat engi nago.

Denbora luze batean beintzat motora igotzeko asmorik eztut, bildurra ere sartzen bai da. Askotan ongi ibiltia ere ezta naioka. Nere akzidentearen ondore a n emen bertan bi apaiz frantsieka no auto barruan illi ziran eta be-ta lau salesiano oso geizki ibiltia-koak dira. Lau bietako bat orain-dik burua galduta dabil. Ni, Jaun-goikoari eskerrak, la ongi na-go.

Felipe Araña

(Argentina'lik bialdua).

EUSKAL IZENAK ZURIA



Etxe sarreran badut nik aritz ondo lodi bat, ezkaratzaren erdian. Zenbat urte ote dul, esan ohi du jendeak. Aurre-raxego, berriz, bada beste zerbitu urte gehiago duena, egu-rrazkoa hura ere eta pipiak jaten hasia: Ama Birjina Xuria. Baina, aritz ondoa ekusgarriago da nunbait datozenentzat, bere azalaren barnean.

Oso zabaldua egon zen garai batez Andra Mari Zuriaren izena Euskalerrian, eta toki izenetan ere agertzen zaigu. Artaxonan, besteak beste, «circa Sanctam Mariam Zuriam», esaten zen latinez illi-gn urtean: Santa Maria Zuriaren ingur-uan, esan nahi du. Iturriren bat ere izango zuen eta, 1157-ko paperetan «Iusta fontem de Sanctazuria» agertzen da: Santa Zuriaren iturri ondoan. Eta gaur bertan ba omen da herrian «Sandazuria» esaten zaion dermio bat.

«Zuri» bakarrrik esaten da beste batzutan, eta jende izena bezala: Herriari-n (1332), Arrasate ta Elgeta-n (1448), «Oñacinos y Gamboinos» izeneko J.C. Gerra-ren liburuan agertzen da. Berdin dator Arabako Ullbarri Gamboan den eliz liburu batean (1760). Baina, luzei izango izatzake euskal izen hau sartua den paper zahar guztien berri ematea.

EMAKUME IZENEA

Oztopo txiki bat badu: gizon izenetako ere erabili izan da. Mutilba-ko Zadar (orainko Sadar) lekuan, mahasti bat saldu zen 1318-an eta saltzaleari Zuria de Saiguos zerazkion. «Iann curia de Irinerri» dio 1224-ko beste agiri batek. Andra gizonek berdin erabiltzekotan gaur ezin laike izen hau legez onartu. Beraz, Andra Mari izena bezala oso zabaldua bai zegoen gure artean, emakume izena beharko luke izan.

Izan ere, hogei ta hamaseikoko gora-beheren aurretik sartzen hasia zen izen hau, eta gaur ere baditugu «Zuri» izeneko emakumeak Iruñen. Zuri hala Zuria? «Txuri» dio «Euskal Ikastintzako Lehen Batzarrera» Oñatin agertutako paper batek.

Batasunaren izenean bat edo beste aukeratu beharrean gertatzen gera eta, nik uste, oso osorik «Zuria» hartzea ko-meni litzakela.

ITZULPENA

Legearren aurrean, denok dakigunez, erdal itzulpena ere badu Zuria izenak. Eragozpen txoraa baizik ez bada ere, eragozpena da gaurko. Halare, aspaldiko izen zaharra da eta horek badu bere indarra. Gainera oso zabaldua zen eta hori paper zaharretan ikusten da. Beraz, leget eragozpenik balitz aurrera ereman laike eta auzia irabazi. Zuriñe hitzare-kin gertatzen dena ez da berdina. Erdetako «Blanca» adie-ratzeko sortua da Zuriñe; Zuria, berriz, hamabigarren men-dean ere oso ezaguna zen. Eta nere galdera hau da: Euskale-rian «La Blanca» (Virgen Blanca) antziñako Zuriaren itzul-pena ez ote da?

Nola-nahi dela, lege txarrena ere aldatzen ez den bitar-tean legera da, eta bere lokarritan koropilatua gera. Gaurko egoeran izen oinarrituei lotu behar izaten dugu, eta Zuria menderik mende bere zain haundiak botaiak dituen izen jatorria da. Zenbat kimu berri botako ditu ondoko urtetan? Bakoitzaren eskuan dago erantzuna.

SAGI

(Nafarroko Diputazioaren euskal «Príncipe de Viana» aldizkaritik artua).

Euskal Disco Berri Bat Baxenafarran

ENAUT ETXAMENDI eta ENAUT LARRALDE lehen diskok ukan duen arrakasta badakigu. Aurtan saldu diren euskal disken artean gehiena agertu da. Harentzat izan da ere Baionan antolatu duten 1971'ko Euskal Diskoren Saria.

Euskal Herrian-bai eta Kalifornian, Nebadan, Idahoan eta bertxe toki ainitzetan, saltzen ari da poliki. Egileek ETXAMENDI eta LARRALDE heien bigarren disko oraintxe ageratazi daukute: «TIKI-TAKA» du izena.

Lau kantu ezin ederragoak ditu: «Tiki-taka», «Argi Zirriri-ta», «Neskato bat», eta «Zato gurekin», edo Ameriketan diren Euskaldunor etxeratzeke dela.

Bigarren disko hura gure betiko ETXAMENDI entzuten dugu haren poesia eta doñu ederrekin, gure lurnaren ohar-tzuna arabera.

Euskal gogoia ezagutzen eta maite duten guztiek onhartu-ko dute bigarren disko hau. Dudarik gabe arrakasta aundia izanen duela.

“AXULAR” SARIAREN MAHAIBURUKOEN ERABAKIAK

«Euskal Orrialde» hontan agertu diren artikulotxo guztien artean, hauek izan dira irabazitakoak: Aurretan. — Lehen: Milla eta bostehun pezetakoa: JOSE MARI AGERRE mutikoa «GERTATUE» ipuiña-dako.

Bigarrena: Lourdetsen ehun pezetakoa: MARIA LOZPEZ MARIATXARRA neskatikoa «AITA-REN LARRITASUNA» ipuiñarendako.

Aurren maisu edo gidari egin dutenen sariak hauek dira:

Lehen: Milla eta bostehun pezetakoa: Elizondoko Mariano Izeta jauna. Bigarrena: Zapletan ehun pezetakoa: Lesakako Espartza anderreña. «EUSKAL ORRIALDE» hontan agertu diren irakurgaiak berrogei izan dira: eta guztiek ehun eta berrogei ta amar pezetako sari bana aritu dute. Iruñean Sanferminetako jaien bezperan 1972. A. Irigaray-P. B. de Ulzurrun.